

SOBIETAR BATASUNAREN 50 urte (I)

Joan den abenduaren 22an mende erdi bat bete da, Errepublik Sobietarren Batasuna sortu zenetik (1922). Moskun festa handiak egin dira. Gure artean oso isilik pasatu da. Halare, gogoeta batzuk merezi ditu, orainari eta geroari buruz.

Europar, gure XX mende honek hain fetxa positibo gutxi dauka. Alegia, faxismoarekin proba egin dugu; militar diktadurak esperimendatu ditugu; bi Mundu Gerra izugarritan sarrazazi dugu mundua; koloniak libre "utzi" ditugu; Eliza katolikoa bi mila urteko tradizioak dardarazi ditugu; Konzilio bat izan dugu; abantoniatu ditugu mundu-ikuskeran eta filosofian idealismoa nahiz historismoa, etc. Dena, gure aurreko mendeak superatu nahiz. Eta egia esateko, garai honen kontaduria nahasian, garatu positibo handirik ez da eraz aurkitzen. Nazionalismoen eta individualismoaren akabera aldeko fenomenoak dirudite gehienak. Berritasun baimo luzapenago, eta kitto. Haro bat hersten da, baina herriaren atek irikitzen asmatu ezinik.

Mende honen hasiera politikotetan, demokraziak eta pentsamentu demokratikoa krisian sartzen diren garaian, haro berri baten hasierarik ezertan nabari bada, iraultza sobietarrean smatzaten da hori. XIX mendeareriko loturak eten eta XX mendearen norbera izateko asmoak, mende gazteak puntu askotan erakusten ditu. Asmoak, alegia, 1910 aldeko arte mugimenduari begiratu besterik ez dago. Faxismoak berak ere denbora arras berriak agintzen zituen. XIX mendeko forma politikoen superazioa, batez ere, eta politikakide berriak, egoera berriak eskatzen zuten gisau. Eta dudarik gabe, halakoxeak zekazkiele, uste zuten bere kolkoan "mila urtetako inperioa". Arrakasta gehiegirik eta berritasun on askorik gabe. Europa zahararen zahartzaroko petralkeria asko, bai.

Aurrerapenaren bidetik, XIX mendetik ezertan apartatu eta urrundu bagara, zientzian eta teknikan izan da. Kontrolatzea zaila den pentsakeraren arloan ere zerbait bai, noski. Halare, gertaera politikoen barrutian, gure mende honek XIX mendearen traza gehiegi du oraindik.

Zerbait benetan berria, ordea, iraultza sobietarrak ekarri du. Ez Errusiarentzat bakarrik, baita Europarentzat eta mundu osoarentzat ere. Europako Estaduek XIX mendean izan dituzten xedeak abandonatu, eta ekinbide guztiz berrietan sarrazazi du politika. Eide berriak iriki dizkio politikari. Eta, ikusten dugunez, batzutan ohartu direlako, bestetan beharturik daudelako, astiro-astiro mundu guztiko Estaduek bide horietan sartuz doaz.

Ahabero batzuk berritasun hori espresabide utopiko eta apokalipti-

tan azaldu nahi izaten ziguten. Orain arteko guztiarekin zirti-zartza hautsi baltiz bezala. Hura eginenez gero dena primeran balego bezala, dena eginda balego bezala, eta beste ezeren premiarik ez legokeen antzera. Superatzeko denak superatu eta berritzeko guztiaz behingoa behin betiko berritu balira bezala. Ez, noski. Halakorik ez dago. Eta urteak pasa ala, ikusmira historikoagoak eta neurruagoak ari dira nagusitzen.

Beste aldean, polemikaren berroan askotan deskuidatu izan da iraultzaren egiazko berritasuna, beste haien kontra joatearen: berritasun guztia eboluzio azkar samar hutsa izan baltiz bezala, eta ez benetako erreboluziorik. Horrela, iraultza haren prespostuak eta kausak etengabe azterkatu ditugu. Jarraitzapean historikoaren aldega garbi azaldu. Azken finean, desarrollo guzira bere kausa hutsatara erreduzitu. Iraultza kreazio ex nihilo baten antzean interpretatu nahi zutenen kontra ere ("zeru ta lur arras berrien" promesak konplizten zirela, sinestaz nahi zigutenen aurka alegia) iraultza hau ere historiaren barruan gelditzen dela, erukusten saiatu gara. Jakina, erreboluzioak lehen-lehenik hasierak dira. Eta gero bere burua nola desarrollatzen duten ere ikusi behar da. Honez gero horrenbestez behintzat momentu bion diferentziatza, konturatu izan behar genuke. Eskierki, mundu honetan ez dago ezer arras berriak. Baina hortik, berritasunik batere ez ikus-tera, pauso luzea dago. Eta badirudi, eztabaidaren berroan pauso luze hori azkartxo eman daitezkeela.

Hau aitorfu eta ohartarazi beharra dago. Iraultza sobietarrari ahoteteka salmoak eta himnoak kantatzea, gero eta gehiago jende klase oso partikular batentzat geldituz doa. (Eta berdin, iraultza hura gidatzen zuten pentsamentuari: hau sarriago egiten bait da, gure ingurua behintzat). Neurri berrean, iraultza sobietarren orijinaltasuna, berritasuna eta eragin-durra positiboa ere erredeskubritu eta argitu beharra dadukagu. Ez lirikoki, eta bai arrazionalki, historiko-kritikoki jardunez. Errebaliatu beharra, hain zuzen.

Errebaliatzeagatik ez ditugu begiak hertsiko, oraindik agirian dagoen hainbeste eta hainbeste problemaren aurrean: gizonaren dextroen begiramenik eza, sozialismoaren egikume autoritarioa, "herri-tar" adjetiboarekin apaindu arren biluzi gelditzen den demokrazia faita, eta beste. Hobekuntza sozial bikainak lortu izan arren, lan-

geria oraindik klase dirijitua da, ez dirjelentea. Eta, jeneralki, desarrollo teknikoaren, industrialaren eta sozialaren aldean, desarrollo politikoa minimala da, herriari politikagintzarako tresnarik ez zailo uzten-ta.

Gogoan eduki behar da, iraultza sobietarra tradizio demokratikorik gabeko lurralde batetan egin zela. Hau sarri aipatu da. Gutxiago aipatzen dena, eta halare hori bezain inportante da. honoko hau da: garai hartan pentsamentu demokratikoa izugarriko krisi jeneralean zegoela, mundu guzian. Demokraziak ez zirudien kapaz, ez problema ekonomikorik burubidatzeko, eta ezta problema sozialak zuzentzeko ere. Ez industriak eta ez herri langileak, sinesten zuten demokrazian. Gogara zenbait esperimendu egin zen, fronte herriarrekid edo besterekin, eta hola batzutan faxismoa guziz demokratikoki nagusitu zen. Iraultzagile sobietarrak ere demokraziaren krisi honen markatuta zeuden. Faxistak eta marxistak elkarren lehiari zebiltzan urte haietan, desprezioz demokrazia "formal" zerizkietenaren kritika amorratuan. Zeuden problema zailak burubidatuko zituen aginide gogorra, bilatzen zuten biek (nahiz-eta eman nahi zituzten soluzioak txit diferentekak izan). Eta iraultza sobietarra krisi honen, demokrazian ez sineste honen eta aginide gogoraren pentsakera honen, markatuta gelditu da, gaur arte. Erreparorik batere gabe onartzen diot hori Larresorri, edo berak aipatzen duen Ruselli.

Demokrazia "herriar" eta "organiko" bezalako adjetiboekin korrejitut dute "demokraziak", ezin ailegatu dira adjetiborik batere gabeko demokraziak haina demokratiko izatera. Egia da, beste zenbait aldetan demokrazia hau superatu dituztela. Baina ez demokraziatan. Horrela, demokrazia herriar sobietarren esanahirik inportanteena alderdi politikoen dagoen bezalaxe, haren alderdirik eskasena eta hutsunerik makurrenak ere hementxe daude. Garbi esan: ez da demokraziarik.

Mende honetan, bi problemaekin konfrontatu behar izan dute sistema politikoei. Dirudienez, mendebaleko demokraziak ere ikasi dute krisi ekonomikoak errenditzen. Problema sozialak burubidatzen, ez dute oraindik aski ikasi. Sobiet Batasunean, ekonomia burubidatzeak ez du mendebalean baino buruhauste gutiago ematen, inolaz ere. Problema sozialak hobeto konponetzen direla, ematen du: eskola, asistentzia soziala, lantokia, seguruak. Beraz, segurantzia sozial gehiago dago, eta mendebale demokratikoan baino askatasun gutiago, segurantzian truke. Demokrazia ez bait da medio bakarrik, helpeide politiko hutsik, hor finkatzen da



Brjnev, Pompidu jaunari agur egiten, urtarrilaren 11ean, Matxultxiko aldeportuan. Bien erdian, Gromyko jauna

"demokrazia herriararen" dudagarritasuna. Ekonomia ederki organizatua eta segurantzia soziala aparte ere, eta beste gauzuekiko erreferentziak aparte ere, askatasuna zerbait bai bait da, berezko bali bezala.


Iraultzak moldaturiko gizarte sobietarrak akats loditxoak badituenik, eta gu geure egoerarekin konforme egon ezta ere, eredu politikotarako onar ahal dezagun asko falta zaionik, ez dago dudarik.

Baina emari bikainak ere baditu. Ekarri dituen aurrerapen tekniko eta sozialak, batik-bat. Eta

batek ere, hasierak eta bideak seinalatu dizkigu iraultza sobietarrak, tipo berri batetako demokraziak eraiki ahal izateko, nahiz-eta berak ere bide horiek ez segitu izan gero. Ta iraultzaren ekarri bikainenetako bat hauxe dugu, hain zuzen: Errepublik sozialista sobietarren Elkargoa, Sobiet Batasuna, abenduaren 22an 50 urte betetzen zituen kreazio politikoa.

Sobiet Batasunaz mintzatzekoan, lehenengo iraultza sobietarrak hitzegin beharra zegoen. (Jarraitzeko).

Joxe Azurmendi



EROSI
1973 garrengo molde berrico gauzak

AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA
24 hilabeteko ordain-epeak

ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE PROBINTZI BARRUAN
DONOSTIAN IRUNEN
MORAZA, 3-14 eta 15nean SAN MARCIAL, 12nean

FAGOR
edaria
epela dagola?
FAGOR 'ek
oztuko
du bereala